

# **HAUTAGAIEN LAN-POLTSA BERRITZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK, ZERTARAKO-ETA SANTURTZIKO UDAL MUSIKA-ESKOLAK EMATEN DITUEN ESPEZIALITATEETAN BEHIN-BEHINEKO KONTRATUPEKO IRAKASLE LANPOSTUAK BETETZEKO.**

## **1.- OINARRIEN XEDEA.**

1.1.- Oinarri hauen helburua zera da, hautagaien poltsa edo zerrenda berritzeko eta kudeatzeko prozesua arautzea, zertarako-eta Santurtziko Udala Musika Eskolak ematen dituen hurrengo espezialitateetan behin-behineko kontratuean irakasle lanpostuak betetzeko:

- Musika Hizkuntza, espezialitate horretan Irakasle tituluduna, 2618/66 Dekretuari jarraituz
- Piano-irakaslea, espezialitate horretan Irakasle tituluduna, 2618/66 Dekretuari jarraituz
- Harmonia-irakaslea, espezialitate horretan Irakasle tituluduna, 2618/66 Dekretuari jarraituz
- Biolin-irakaslea, espezialitate horretan Irakasle tituluduna, 2618/66 Dekretuari jarraituz
- Txistu-irakaslea, espezialitate horretan Irakasle tituluduna, 2618/66 Dekretuari jarraituz
- Akordeoi-irakaslea, espezialitate horretan Irakasle tituluduna, 2618/66 Dekretuari jarraituz
- Saxofoi-irakaslea, espezialitate horretan Irakasle tituluduna, 2618/66 Dekretuari jarraituz
- Perkusio-irakaslea, espezialitate horretan Irakasle tituluduna, 2618/66 Dekretuari jarraituz
- Biolontxelo-irakaslea, espezialitate horretan Irakasle tituluduna, 2618/66 Dekretuari jarraituz
- Gitarra-irakaslea, espezialitate horretan Irakasle tituluduna, 2618/66 Dekretuari jarraituz
- Klarinete-irakaslea, espezialitate horretan Irakasle tituluduna, 2618/66 Dekretuari jarraituz
- Flauta-irakaslea, espezialitate horretan Irakasle tituluduna, 2618/66 Dekretuari jarraituz
- Tronpa-irakaslea, espezialitate horretan Irakasle tituluduna, 2618/66 Dekretuari jarraituz

1.2.- Egingo diren kontratazioen helburua ordezkapenak egitea eta sortzen diren behin-behineko giza baliabide beharrak asetzea da.

## **2.- HAUTAGAIK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.**

2.1. Hautaketa probetan onartua izan eta parte hartzeko hautagaiak hurrengo baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 57. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

b) Hamasei urte beteta izatea, eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehienezko adina gainditu gabe izatea.

c) Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

d) Diziplina-espedientearen bidez, inongo herri-administrazioetako zerbitzutik bereizita ez egotea edo eginkizun publikoak egiteko ezgaiturik ez egotea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 56,1,d) artikulua terminoetan.

e) 1.1. Oinarrian zehazten den espezialitate bakoitzerako titulua izatea edo beroriek lortzeko bidean egotea, tituluak emateko eskubideak ordainduta izanik eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean.

2.2. Hautagaiak oinarri hauetan ezarritako baldintzak izan beharko ditu eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, eta erabili ahal izango ditu hautaketa-prozesua dirauen bitartean eta kontratazioaren unera arte.

## **3.- PUBLIZITATEA.**

3.1. Hurrengo hauek Udaletxeko ediktu-taulan argitaratuko dira: onartutakoen eta ez onartutakoen zerrendak, epaimahaiko kideen izendapena, epaimahaia osatuko den zein merituak baloratuko diren tokia, eguna eta ordua, emaitza eta hautagaien puntuazioak.

3.2. Prozesu honekin lotutako informazioa berdin-berdin egongo da eskuragarri, informazio ondorioetarako baino ez, Santurtziko Udalaren webgune ofizialaren behin-behineko lan/enplegua atalean ([www.santurtzi.net](http://www.santurtzi.net)).

## **4.- ESKABIDEAK ETA HAUTAKETA PROZESUAREN GARAPENA**

4.1. Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak doan banatuko dira Santurtziko Udalaren Erregistro Nagusian. Era berean, eskabide espezifikorako eredia oinarri hauen 1. Eranskinean eta Interneteko webgunean [www.santurtzi.net](http://www.santurtzi.net) (tramiteak) egongo da eskuragarri. Interneteko aipatutako gunean dagoen eskabide orokorretarako eredia ere erabili ahal izango da. Edonola ere, hautagaiak hurrengo datu hauek eman beharko dituzte:

- Izen-abizenak.
- Parte hartuko duten espezialitatea
- Ohiko jakinarazpenak bidaltzeko helbidea.
- Telefono zenbakia (ahal dela, sakelakoa) eta helbide elektronikoa premiazko jakinarazpenetarako.

4.2.- Eskakerak Alkate udalburuari zuzenduta egongo dira, eta udaletxeko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, edo Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 38.4 artikuluan zehazten diren lekuetan. Eskakerak posta-zerbitzuaren bidez helaraztekoan, itxi gabeko gutun-azalean bidali beharko dira, aipatu zerbitzuak zigilua eta data ezarri diezazkioten eskariok erregistratu aurretik.

Horrez gain, Internet bidez aurkeztu ahal izango dira [www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net) helbidean (izapideak-instantzia orokorrerako eskabidea).

4.3. Eskariak aurkezteko epea hamabost lanegunekoa izango da, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

4.4 Hautagaiak eskariari Nortasun Agiriaren fotokopia erantsi beharko diote. Hautagaiak eskatutako tituluaren jabea dela kontratazioa egiten den unean egiaztatu beharko du.

4.5.- Era berean, 7.3. Oinarriak aipatzen duen dokumentazioa ere erantsiko diote.

4.6. Honako deialdian parte hartzeak eskabidean bildutako datu pertsonalak erabiltzea baimentzea dakar, hurrengo hauek hain zuzen: izen-abizenak, NAN eta prestakuntza maila, horiek buletinean, iragarki oholean, webgunean eta orokorrean hautaketa-prozesuaren emaitza partzial edo behin betikoak jakinarazteko bitartekoetan argitara daitezzen, bai eta IVAPek edo eskumena duten erakundeek Euskara edo beste hizkuntza baten ezagutza maila egiaztatu dezaten ere, eta orokorrean, epai-mahaiak edo honek proba egiteko agintzen dion bestelako erakunde edo enpresa batek hautaketa-prozesua egiteko probak zuzen prestatu eta egiteko beharrezkoak diren datuak erabiltzeko aukera izango du.

Publizitatearen printzipioak arautuko ditu hautaketa prozesuak, eta beraz ez da eskabidea onartuko baldin eta hautagaiak ez badu bere datuak aurreko paragrafoan adierazitako helburuetarako lagatzeko baimenik ematen.

Hautaketa prozesuaren ondorioz, lan-poltsak egiteko xedez, hautagaiak aipatutako prozesuetan parte hartzeko eskabidean adierazi beharko dute onartzen duten Herri Administrazioaren beste erakunde batzuei zenbait datu lagatzea (izen-abizenak, NAN, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza maila), enplegu eskaintzak egin ditzaten lege ezarritako

terminoetan. Beren-beregi ez dela onartzen adierazten ez bada, baimendutzat joko da.

Hautagaiak emandako datuak “Enplegu eskaintza” izeneko fitxategi batean sartuko dira, zeinen organo erantzulea Santurtziko Udaleko Barne Araubide eta Giza Baliabide Arloa izango den.

Interesdunek fitxategian sartu, zuzenketak egin, baliogabetu eta horien aurka jotzeko eskubideak erabiltzeko idatzia aurkeztu beharko dute Santurtziko Udaleko Barne Araubide eta Giza Baliabideetako Arloan (Genaro Oraá 1-3, 48980 Santurtzi).

## **5.- HAUTAGAIAK ONARTZEA.**

5.1. Eskaerak aurkezteko epea behin bukatuta, Alkatearen Dekretu bidez onartuko da prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien zerrenda. Hautagaiak ez onartzeko arrazoiak zein izan diren adieraziko dira, eta oinarritzko akats edo hutsuneak zuzenduko, horrela behar denean. Erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean azalduko da.

5.2. Akatsak edo hutsak zuzentzeko eskatzeko epea, 4.2. atalean adierazitako tokietan azalduta, hamar lanegunekoa izango da, aurreko erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita. Gero, akatsak edo hutsak zuzentzeko izapidea egitekotan, Alkateak berriro emango du ebazpena onartu eta baztertutako kideen behin betiko zerrenda onartuz.

5.3. Besteak beste, ezin izango da konpondu eskabidea epez kanpo aurkezten bada, ez eta merituak egiaztatzeko agiriak akatsez edo hutsez edo epez kanpo aurkezten badira ere.

5.4. Hautagaia onartua izateak ez dakar berez, prozesuaren izapideek dirauten bitartean, kanporatua ez izateko eskubidea, proba guztiak eginda egon zein ez, edo kontratazioa egin arte, baldin eta hautagaien datuak edo beroriek aurkeztutako agiriak egiaztatzean, epaimahaiak ikusten badu, norbaitek prozesuan onartua izateko eta bertan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ez dituela. Horrela gertatzen bada, epaimahaiak kanporatze-proposamena egingo du, Alkate udalburuak dagokion erabakia har dezan, hautagaiari alde aurretik entzunaldia eginda.

## **6.- EPAIMAHAIA**

6.1.- Hautaketa-epaimahaiaren kideak Alkatearen Dekretuaren bidez izendatuko dira, bai eta epaimahaia osatzeko zein merituak baloratzeko tokia, eguna eta ordua ere.

6.2.- Epaimahaia hurrengo arau hauen arabera osatuko da:

a) Epaimahaia kide anitzekoa izango da eta Presidente batek (1), Idazkari batek (1) eta lau bokalek (4) osatuta egongo da.

b) Epaimahaia kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna aintzat hartuta izendatuko da, eta bertan gizon-emakumeen arteko parekotasuna gordeko da. Boto eskubidea duten kideen erdiak, gutxienez, izan beharko dute sartzeko eskatzen den ezagutza-arloari dagokion titulazioa, eta kide guztiek maila akademiko berbera edo altuagoa.

c) Epaimahaikideek modu indibidualean hartuko dute parte, ezin izango dute, beraz, beste baten ordezkari edo kontura jardun.

d) Ezin izango dute epaimahaian jardun hautaketa edo izendapen politikodun kideek, funtzionario interinoek eta behin-behineko langileek.

6.3. Administrazio Jardunbide Arruntaren araubidean aurreikusitako egoeraren bat gertatzen baldin bada, epaimahaiko kideek ez dute ezer egingo baina izendatu dituen organo eskumendunari emango diote gertatutakoaren berri. Era berean, ezin izango dute epaimahaikide, laguntzaile edo aholkulari gisa izendatuak izan edo horrela jardun, deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautagaiei hautaketa-probetarako prestakuntza eman dietenek. Horrela gertatuz gero, abstentzio kasuetan bezala jardun beharko da.

6.4. Epaimahaiaren jarduna baliozkoa izan dadin, presidente eta idazkaria edo horien ordezkariak eta gutxienez bokalen erdia elkartu beharko dira. Akordioak hartuko dira bertan diren epaimahaiko gehiengo kideen aldeko botoekin, eta berdinketarik gertatuz gero, Presidentearen kalitatezko botoak desegingo du berdinketa. Honako Oinarri hauetan adierazten ez den guztian epaimahaiak azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluaren II. atalean zehazten dena beteko du.

6.5.- Epaimahaiak egingo dituzte hautaketa sistema osatzen duten proba edota merituen garapena eta ebaluazioa, eta hauek autonomia funtzional osoz arituko dira, jardunbidearen objektibotasunaren arduradun izango dira eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko dute. Epaimahai kalifikatzailea oinarri hauen interpretazioan eta ezarpenean sor litezkeen zalantza eta gai guztiak argitzeko gaitasuna duen bakarra izango da, bai eta hautaketa-prozesuak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko ere, ezar daitekeen araudian edo Oinarrietan zehaztuta ez dauden egoera guztietan.

6.6.- Interesdunek epaimahaiak hartzen dituen erabakiak aurkaratu ahal izango dituzte administrazio prozedura erkidearen araudian zehaztutako moduan eta epeetan.

6.7. Epaimahaiak aholkulariak izendatu ahal izango ditu hautaketa-prozesuko proba batzuetarako edo guztietarako. Aholkulariok beren espezialitate teknikoetan beste ezertan ez dute jardungo.

## **7.- MERITU LEHIAKETA.**

7.1. Lehiaketa hautagaiek egiaztatzen dituzten merituak baloratzean datza, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den data erreferentzia gisa hartuz eta hautagaien lehentasun-hurrenkera ezartzeko helburuz. Merituen balorazioa hurrengo atal honetan ezarritako baremoaren arabera egingo da. Balorazioa egin aurretik, epaimahaiak 2. oinarrian adierazitako parte-hartze baldintzak betetzen diren ala ez aztertuko du.

7.2. Ondoko merituak baino ez dira kalifikatuko, hurrengo lerrootan zehazten diren gehienezko puntuazioen arabera, eta puntuazioa ezin izango da inolaz ere 52,80 puntutik gorakoa izan:

7.2.1. Izaera publikodun Kontserbatorio edo Musika Eskoletan dagokion espezialitateko irakasle zerbitzuak eman izana, karrerako funtzionario gisa zein funtzionario interino edo langile finko edo behin behineko gisa: 0,2 puntu hileko edo hamabost eguneko edo gehiagoko tarte bakoitzeko. Gehienez 20 puntu lor daitezke. Puntuazio hau jardunaldi osoei baino ez zaie ezarriko, jardunaldi partzialen kasuetan indize zuzentzaile proportzionala ezarriko da, eta ondorio horietarako, agiriak lan jardunaldiari buruzko portzentajea eta datuak agertu beharko ditu.

Herri-administrazioan emandako zerbitzuak eskumena duen organoak egindako agiriaren bidez egiaztatuko dira. Edonola ere, agiriak aurreko paragrafoan zehaztutako alderdiak adierazi beharko ditu, lanean emandako denborari, lanaldiari, plazari eta espezialitateari buruzko datuak emanez.

Ez dira adierazi diren zerbitzuekin batera emandako zerbitzuak zenbatuko, ez eta instantziak aurkezteko epearen amaiaren osteko aldietan emandako zerbitzuak ere.

7.2.2. Izaera pribatudun Kontserbatorio edo Musika Eskoletan dagokion espezialitateko irakasle zerbitzuak eman izana, karrerako funtzionario gisa zein funtzionario interino edo langile finko edo behin behineko gisa: 0,1 puntu hileko edo hamabost eguneko edo gehiagoko tarte bakoitzeko. Gehienez 10 puntu lor daitezke. Puntuazio hau jardunaldi osoei baino ez zaie ezarriko, jardunaldi partzialen kasuetan indize zuzentzaile proportzionala ezarriko da, eta ondorio horietarako, agiriak lan jardunaldiari buruzko portzentajea eta datuak agertu beharko ditu.

7.2.3. Dagokion espezialitatearekin zuzenean lotutako mintegiak, ponentziak edo hitzaldiak eman izana: gehienez 6 puntu, zeinen banaketa Epaimahaiak ezarriko duen, beren-beregi aintzat hartuz prestakuntza-ekintzaren iraupena.

7.2.4. Dagokion espezialitatearekin zuzenean lotutako prestakuntza-edo hobekuntza-ekintzetan parte hartu izana: gehienez 4 puntu, zeinen banaketa Epaimahaiak ezarriko duen, prestakuntza-ekintzaren iraupena aintzat hartuz.

7.2.5. Deialdian eskatutako titulazioan sari berezia edo ohorezko saria lortu izana: gehienez 2 puntu, zeinen banaketa Epaimahaiak ezarriko duen irizpide objektiboei jarraituz.

7.2.6. Dagokion espezialitatean Goi Mailako Irakasle tituluaren balorazioa, 2618/66 Dekretuari jarraituz: 2 puntu.

7.2.7.- Euskara ezagutza: gehienez 8,8 puntu. Puntuazio hori 3. Hizkuntza Eskakizuna, altuagoa edo horien baliokidea dutela egiaztatzen dutenei emango zaie.

“Euskararen ezagutza” merituen baloraziorako aintzat hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeari buruzko apirilaren 15eko 86/97 Dekretuaren 41. artikuluan ezarritako baliokidetza sistema.

7.3.- Adierazitako merituen egiaztatu eta baloratzeko deskribatutako arauak ez ezik, hurrengo hauek ere hartuko dira aintzat:

7.3.1. Hautagaiek instantziak aurkezteko epean merituen egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte. Agiri originalak edo kopia konpultsatuak baino ez dira hartuko egiaztagirizat, eta horrela aurkezten ez direnak ez egiaztatutzat hartuko dira.

7.3.2. Ez dira baloratuko instantziak aurkezteko epea amaitzen denean behar bezala egiaztatuta ez dauden merituen. Bereziki, ez dira kontuan hartuko, 7.2. Oinarrian zehaztutako baremoaren arabera, aipatzen dituzten merituen baloratzeko beharrezkoak diren datuak ez dituzten agiriak.

7.3.3. Santurtziko Udalak lehenago deitu dituen hautaketa prozesuetan parte hartu duten hautagaiek ez dituzte dagoeneko egiaztatuta dituzten merituen egiaztatu behar izango, ezarri beharreko Oinarriari jarraituz dagokion puntuazioari kalterik egin gabe. Edonola ere, egiaztatetik salbuetsita dauden merituen adierazi beharko dira nahitaez. Horrela egin ezean, ezin izango dira baloratu.

## **8.- LEHIAKETAREN EMAITZA**

8.1. Lehiaketa fasean lortutako puntuak ezarriko dituzten deitutako espezialitate bakoitzean hautagaien klasifikazio- eta lehentasun-hurrenkera, beharrezkoak diren kontratazioak egiteko hautagai zerrenda edo poltsa osatuz. Espezialitate bakoitzaren zerrendak bakar-bakarrik beteko dituzte aipatu espezialitate hori emateko egin beharreko kontratazioak.

8.2. Hautaketa-prozesua behin bukatuta, epaimahaiak lehiaketaren behin-behineko emaitza onartuko du, espezialitate bakoitzeko hautagaiak lortutako puntu kopuruaren arabera ordenatuz, puntu gehien lortu dituenetik hasi eta gutxien lortu dituenera arte. Bertan hautagaiek meritu bakoitzean lortutako puntuazioa ere adieraziko da.

8.3. Epaimahaiak aurreko emaitzaren berri Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz emango du, eta bost laneguneko epean, argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita, interesdunek alegazio-idatzia aurkeztu ahal izango dute, euren iritziz behar bezala baloratu ez diren merituak berrikusteko eskatuz. Aurkezten diren alegazioak ikusita, epaimahaiak lehiaketaren behin betiko emaitza onartuko du, aurreko bigarren atalean adierazitako moduan. Alegazio-idatzirik aurkezten ez bada, behin-behineko emaitza automatikoki behin betikoa izango da.

8.4. Behin betiko emaitza Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta une horretan hasiko da azaroaren 26ko 30/1992 Legearen VII. Tituluaren II. Kapituluan adierazitako helegiteak aurkezteko epea.

## **9.- POLTSAREN KUDEAKETA.**

9.1. Kontratazioak lehenengo eta behin eskainiko zaizkie lanpostua betetzeko baldintzak beteta, guztira puntuazio altuen lortu duten hautagaiei. Berdinketa baldin bada, eskaintza merituetan lortutako puntuazio altuenari jarraituz egingo da, 7.2. Oinarrian duten hurrenkeraren arabera. Horrela ere berdinketak bere horretan badirau, zozketa egingo da hautagaien artean.

Eskaintako lanpostuak ezarrita duen hizkuntza eskakizunaren derrigortasun-data amaituta balego eta hautagai bakar batek ere ez balu aipatu hizkuntza eskakizuna izango, kontratazioa eskaini lekieke eskatutakoaren aurreko hizkuntza eskakizun maila egiaztatzen duten hautagaiei.

9.2. Egin beharreko kontratu bakoitzeko gehienez bitan deituko zaie espezialitate bakoitzeko lehenengo hiru hautagaiei, euretako bakoitzak kontratazioarekiko adostasuna edo desadostasuna ager dezan. Batek ere ez badu adostasunik agertzen, beste bina dei egingo zaie kontratu bakoitzeko hurrengo hirurei eta berdin jokatuko da hurrengoekin, deitutako hautagairen batek kontratazioarekin adostasuna agertu arte.



9.3. Hautagai batek baino gehiagok agertzen badute adostasuna, emaitzen behin betiko zerrendan puntuaziorik altuena duen hautagaiarekin jarriko da harremanetan telefonoz, eta data ezarriko da kontratua formalizatu eta horri hasiera emateko, 2. oinarrian adierazitako tituluak dituztela alde zuzenetik egiaztatzen beharko dute.

9.4. Hurrengo arrazoi hauek onartuko dira lanari uko egin ahal izateko, emaitzen zerrendan okupatzen den tokia galdu gabe:

- a) Gaixotasun arruntak edo lanean gertatu ez den istripuak eragindako behin-behineko ezgaitasuna.
- b) Laneko gaixotasunak edo lan-istripuak eragindako behin-behineko ezgaitasuna.
- c) Amatasuna eta arriskua haurdunaldian: amaren kasuan, baldin eta kontratuari uko egiten bazaio haurdunaldiaren zazpigarren hil eta erditzearen osteko hamazortzigarren astearen artean. Ama hilez gero, aitak uko egin ahal izango dio kontratuari erditzearen osteko hamazortzigarren astera arte. Amak eta aitak, biek, lan egiten badute aitak uko egin ahal izango dio umea jaio eta hilabete batez.
- d) Aitatasuna: kontratuari uko egiten bazaio umea jaio eta hurrengo bost egunetan.
- e) Adopzioa: kontratuari uko egiten bazaio adopzio ebazpena eman eta hurrengo hamazortzi asteetan.
- f) Ezkontza edo harreman egonkorraren hasiera: kontratuari uko egiten bazaio ezkondu edo erregistroan inskribatu eta hurrengo edo aurreko 20 egun naturaletan.
- g) Une horretan zentro publiko edo pribatu batean irakasle aritzea.
- h) Zuzeneko senideen heriotza.

9.5. Kontratuari uko egiteko aurreko arrazoi bat adierazten duen pertsonak dagokion egiaztapenak aurkeztu beharko ditu, bai uko egiten duen unean, egitea gertatu dela egiaztatuz, bai uko egitea eragin zuen egitea eten egin dela komunikatzeko orduan, egitearen amaiera egiaztatuz. Laneko gaixotasunak edo lan istripuak eragindako behin-behineko ezgaitasuna duten hautagaiei, edota amatasun eta haurdunaldian arrisku egoeran egon daitezkeen hautagaiei berdinean deitzen jarraitu ahal izango zaie uko egin ez balute bezala. Era berean arestian aipatutako arrazoi bat adierazten duen hautagaiak emaitzen zerrendan aldi baterako baja eskatu ahal izango du, alde zuzenetik bai horren eragilea eta bai amaiera egiaztatuz.

9.6. Emaitzen zerrendan okupatzen den tokia galtzeko arrazoi izango da:

- a) Kontratuari uko egitea aurreko atalean adierazita ez dagoen beste arrazoi batengatik.
- b) Hutsegite larri edo oso larriagatik diziplina-espedientez zehatu izana.

Kontratuari arrazoitu gabe uko egiten bazaio, Udalak interesdunari dakartzan ondorioak jakinaraziko dizkio, hautagaiari alde zuzenetik entzunaldia eginda, Alkate Udalburuak dagokion erabakia har dezan.

## **10.- EGUNERATZEA ETA BERRITZEA.**

10.1. Ikasturte bakoitza hasi aurretik, 6. Oinarriari jarraituz izendatutako epaimahai kalifikatzailea bilduko da, poltsan jarraitzen duten hautagaien puntuazioa eguneratzeko.

10.2. Eguneratzea egiten denean, hautagaien onarpena sustatzeko helburuz, kontuan hartuko da hurrengo merituaren balorazioa, horretarako Barne Araubideko Arloan dauden datuei jarraituz:

– Santurtziko Udalean dagokion espezialitatearen irakasle gisa zerbitzua eman izana, hautagai-poltsa honen kudeaketa hasita eta horrek dirauen artean deiak onartu izanaren ondorioz: 0,16 puntu hileko edo hamabost eguneko edo gehiagoko tarte bakoitzeko. Puntuazio hau jardunaldi osoei baino ez zaie ezarriko, jardunaldi partzialen kasuetan indize zuzentzaile proportzionala ezarriko da, eta ondorio horietarako agiriak lan jardunaldiari buruzko portzentajea eta datuak agertu beharko ditu.

10.3. Behin aurreko paragrafoan aipatutako meritua baloratuta, epaimahaiak behin betiko emaitzen zerrenda eguneratuko du, 8. oinarriari jarraituz.

10.4. Hautagaien poltsa zabaldu edo berritu behar dela irizten zaionean, beste deialdi bat onartuko da.